



UNIBERTSITATEAZ KANPOKO BEKAK 2023-2024

Uztailaren 17an argitaratuko da EHAAn 2023-2024 ikasturterako unibertsitateaz kanpoko ikasketak egiteko beka, laguntza eta diru-laguntzen deialdia.

Deialdi honetako berritasun gisa, 400 euroko sorospena ezarri da Hezkuntza Sailean hezkuntza-laguntzaren berriazko premia duten ikasle gisa erregistratuta dauden ikasleak eskolatzearen ondoriozko gastu gehigarri orokorretarako. Sorospen hori emateko, ez da kontuan hartuko ez errenta, ez familiaren ondarea.

Eskabideak aurkezteko epea 2023ko uztailaren 18tik irailaren 30era bitartekoa izango da, biak barne

Irailaren 30aren ondorengo matrikulazioen kasuan eta Aginduaren 25. Artikuluan jasotako egoeren kasuetan, eskabideak aurkezteko epea 2024ko apirilaren 30ean amaituko da.

Deialdi honi dagokion informazioa webgune honetan eskuratu ahal izango da:

<https://www.euskadi.eus/unibertsitatez-kanpoko-ikasleak-eskolatzeko-ikasketa-beka-eta-laguntzak/web01-a2hikas/eu/>

Ikasle batek ere ezin izango du deialdi-aginduan araututako beka edo laguntza bat baino gehiago jaso, nahiz eta aldi berean bertan zerrendatutako ikasketa mota bat baino gehiago egin. Ikasle batek beka-eskaera bat baino gehiago aurkezten badu, erregistratutako azkena baino ez da izapidetuko.

2022-2023 ikasturtean beka edo laguntzaren onuradun izan ziren eta matrikula kudeatzeko aplikazioan sartutako irakaskuntzetan matrikulatuta dauden ikasleei jada betetako eskabidea-zirriborroa SMS eta/edo posta elektronikoko bidez eskuratzeko aukera emango zaie.

Eskabidea telematikoki aurkeztea erabakitzen baduzu, SMS eta/edo Email bidez emandako Interneteko helbidea erabili ahal izango duzu, eta dagokion ikaslearen jaiotze-data sartu eta "proposamena deskargatu" botoia sakatu. Horrela, eskabidearen zirriborroa lortuko duzu, eta honela aurkez dezakezu:

- zirriborroan emandako kodea (aukera: "Egiaztapen-kodea duen telematikoa")
- ziurtagiri elektronikoko bat ("telematikoa ziurtagiri elektronikoarekin" aukera)
- Eskabide-orria inprimatu, sinatu eta ikastetxera joanda ("ikastetxean bertan" aukera)

Eskatzaileak ikastetxean bertan aurkeztea aukeratzen baduzu (c), eskabidea sinatu eta ikastetxean entregatu, eta bertan erregistratuko da eta egiaztagiria emango zaio. Egiaztagiri hori gorde egin beharko da, edozein erreklamazio izapidetu behar izanez gero aurkeztu ahal izateko..

Eskabidea paperan ere jaso ahal izango da ikastetxean, aurreko ikasturteetan bezala.